

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

2020ko Aurrekontu orokorraren behin betiko onarpena ematea

Ez da inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu 2020ko aurrekontu orokorrari hasierako onarpena ematen dion erabakiaren aurka. Beraz, Arabako lurralde historikoko toki erakundeen aurrekontuen otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, aurrekontu hori behin betiko onartu da. Hona hemen kapituluka laburtuta:

Gastuen egoera

KAPITULUA	ZENBATEKOA (EURO)
I. Langile gastuak	386.216,11
II. Ondasun arruntak erostea eta zerbitzuak	287.020,00
III. Finantza gastuak	0,00
IV. Transferentzia arruntak	159.081,78
VI. Inbertsio errealak	150.240,44
VII. Kapital transferentziak	6.000,00
VIII. Finantza-aktiboak	0,00
IX. Finantza-pasiboak	0,00
Gastuen guztira	988.558,33

Sarrereren egoera

KAPITULUA	ZENBATEKOA (EURO)
I. Zuzuneko zergak	517.951,33
II. Zeharkako zergak	25.000,00
III. Tasak eta bestelako sarrerak	89.400,00
IV. Transferentzia arruntak	321.969,08
V. Ondare sarrerak	34.237,72
VI. Hirigintza jarduketan ondorioz izan diren inbertsio errealak eta bestelako sarrerak besterentzea	0,00
VII. Kapital transferentziak	0,00
VIII. Finantza-aktiboak	0,00
IX. Finantza-pasiboak	0,00
Diru sarrerak guztira	988.558,33

Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak 127. artikuluan eta euskal funtzio publikoaren Legeak 16. artikuluan araututakoarekin bat etorritz, udal honek onartutako lanpostu zerrenda eta plantila organikoa ematen dira argitarara.

Lanpostuen zerrenda**A. Karrerako funtzionarioak**

1. Gaikuntza nazionaleko funtzionarioak.

1. Idazkaria-kontuhartzailea. Betetze-era L, taldea A1, destino-osagarria 26, berariazko osagarria 25.257,40 euro. Eskala: estatuko gaikuntza. Hizkuntza eskakizuna 4, derrigortasun data 2011ko urriaren 19. Lan-jarduna: erabatekoa, administrazio egoera: betea. Behaketak: ehuneko 25eko jarduera berezia.

B. Administrazio orokorreko funtzionarioak

1. Administrari laguntzailea. Betetze-era L, taldea C2, destino-osagarria 14, berariazko osagarria 14.875,67 euro. Eskala: orokorra. Hizkuntza eskakizuna 2. derrigortasun data 2011ko maiatzaren 13. Administrazio egoera: hutsik.

2. Aguazila. Betetze-era L, taldea C2, destino-osagarria 8, berariazko osagarria 11.891,18 euro. Hizkuntza eskakizuna 2. derrigortasun data 2018ko ekainaren 27. Administrazio egoera: hutsik, behaketak: prestutasuna/B2 gida baimena/ ehuneko 20ko jarduera berezia.

C. Lan kontratupeko langileak

1. Administrari laguntzailea. taldea C2, destino-osagarria 14, berariazko osagarria 22.541,54 euro. Hizkuntza eskakizuna 2 derrigortasun data gabe. Administrazio egoera: betea.

2. Garbilitzailea, taldea EEPP. Hizkuntza eskakizuna 2. derrigortasun data 2018ko ekainaren 27. Administrazio egoera: hutsik, behaketak: herrialdeko garbiketa hitzarmena.

Plantila organikoa**A. Karrerako funtzionarioak**

1. Gaikuntza nazionaleko funtzionarioak.

1. Idazkaria-kontuhartzailea. Taldea A1. Eskala: estatuko gaikuntza. Administrazio egoera: betea.

B. Administrazio orokorreko funtzionarioak

1. Administrari laguntzailea. Taldea C2. Eskala: Orokorra, Administrazio egoera: hutsik.

2. Aguazila. Taldea C2. Eskala: berezia, Administrazio egoera: hutsik.

C. Lan kontratupeko langileak

1. Administrari laguntzailea. Taldea: C2. Administrazio egoera: betea.

2. Garbitzailea. Taldea EEPP. Administrazio egoera: hutsik.

Toki araubidearen oinarrien Legearen 75.5 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, udaleko kideek ordainsariengatik, kalte-ordainengatik eta laguntzengatik jasoko dituzten zenbatekoak honakoak izango dira

1. Alkatetzeta: ehuneko 75eko zatikazko jarduna. Soldata gordina: 32.114,18 euro.

2. Zinegotziek bilkura, batzorde, batzar eta karguari dagozkion ekintzetara joaten diren bakoitzeko 30 euro jasoko dituzte.

3. Herri barruan edozein tokitatik Ozaetara egiten diren joanetorriak ordaindu egingo dira; hain zuzen ere, 0,29 euro kilometroko.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Ozaetan, 2020ko otsailaren 5ean

Alkatea

IGOR MEDINA ISASA